Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

**DECRETO Nº 2561**
(P006509)

**ACUERDO:**

Udalbatzak, bi mila eta bederatziko azaroaren hogeita bostean eginiko bilkuran, besteak beste, honako erabakia hartu zuen, A.F.A.ren 206. artikuluaren salbuespenarekin:

El Excmo. Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el día veinticinco de noviembre de dos mil nueve, adoptó, con la salvedad del Art. 206 del R.O.F., entre otros, el siguiente acuerdo:

**"Gaia: 2008PGEN0001 espedientea, 7.2.04 ARBES eremuan Plan Nagusiaren 22. Aldaketari dagokiona.**

**"En relación con el expediente nº 2008PGEN0001 relativo a la Modificación Nº 22 del Plan General en el ámbito 7.2.04 ARBES.**

**Egitateak:**

**Resultando los siguientes hechos:**

-Udalbatzak 2008ko azaroaren 26 egin zuen Osoko Bilkuran erabaki zuen *hasieran onestea 7.2.04 ARBES eremuan Plan Nagusia Aldatzeko Proiektua (22. aldaketa), Proiektu hori jendaurrean ikusgai jartzea eta urtebetez etetea edonolako onespen, baimen eta hirigintza-lizentziak ematearena.*

-El Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el día 26 de noviembre de 2.008 acordó *aprobar inicialmente el Proyecto de Modificación del Plan General (Modificación nº 22) en el ámbito 7.2.04 ARBES, someter a información pública el presente Proyecto y suspender por plazo de un año el otorgamiento de toda clase de aprobaciones, autorizaciones y licencias urbanísticas.*

-Espedientea jendaurreko informazioan izapidetu zen, eta ez zen alegaziorik aurkeztu.

-Los acuerdos fueron sometidos a información pública sin que se presentaran alegaciones.

-Udalbatzak 2009ko uztailaren 29ko osoko bilkuran erabaki zuen behin-behinean onestea *Aldaketa Proiektua.*
Era berean, espedientea eta Proiektua Euskadiko Lurralde Antolamenduko Batzordera igortzea erabaki zen, Batzorde horrek aginduzko txostena egin dezan.
Udal Plangintzako Aholku Kontseiluak aldeko txostena egin zuen, eta hartu zituen erabakiak erantsi zitzaizkion behin-behinean onesteko erabakiari.

-El Ayuntamiento Pleno en sesión de 29 de julio de 2009, acordó aprobar provisionalmente el *Proyecto de Modificación.*
Asimismo se acordó remitir el expediente junto con el Proyecto a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco para la emisión del preceptivo informe.
Al acuerdo de aprobación provisional se adjuntaron los acuerdos adoptados por el

Consejo Asesor de Planeamiento Municipal que informó favorablemente.

-Plan Nagusiaren 22. Aldaketaren xedea da Sistema Nagusi gisa Laguntza Ekipamenduaren ezarpena ahalbidetzea.

-La Modificación nº 22 del Plan General tiene por objeto posibilitar la implantación como Sistema General de un Equipamiento Asistencial.

Orain, 7.2.04 ARBES eremuaren kalifikazio globala Kirol Ekipamenduko Sistema Nagusia da.

La actual calificación global del ámbito 7.2.04 ARBES es de Sistema General de Equipamiento Deportivo.

Hala ere, komenigarritzat jo da laguntza-ekipamendu baten beharrak ARBES eremuan bertan konpontzea, kirol ekipamenduak ezartzearen kalterik gabe.

No obstante, se ha considerado la conveniencia de resolver en el mismo ámbito de ARBES las necesidades de un equipamiento asistencial sin perjuicio de la implantación de equipamientos deportivos.

Gainera, Sistema Nagusien sarea osatzen da, Artia errekari eta Autopistari dagokienez.

Se completa además la red de Sistemas Generales asociados a la existencia de la regata de Artía y a la Autopista.

Honako hauek dira gaur egungo Kirol Ekipamenduaren Sistema Nagusiaren kalifikazioa ordezkatuko duten kalifikazio globalak:

- Laguntza Ekipamendu Komunitarioaren Sistema Nagusia (EA)
- Ibai Ibilguaren Sistema Nagusia (C)
- Bideen Sistema Nagusia (V)
- Gune Libreen Sistema Nagusia (L)

La actual calificación de Sistema General de Equipamiento Deportivo se sustituye por las siguientes calificaciones globales:

- Sistema General de Equipamiento Comunitario Asistencial (EA)
- Sistema General de Cauce Fluvial (C)
- Sistema General de Viario (V)
- Sistema General de Espacios Libres (L)

Gainera, Plan Nagusiaren Aldaketak kalifikazio xehatua jasotzen du, eta beraz, ez da beharrezkoa garapen-plangintza bat formulatzea.

Además la Modificación del Plan General recoge la calificación pormenorizada por lo que no se requiere formular un planeamiento de desarrollo.

Eremuaren antolamendu xehatua bat dator kalifikazio globalarekin Bide Sistema Nagusiaren (V) kasuan, Ibilguen Sistema Nagusiarenean (C) eta Gune Libreen Sistema Nagusiarenean (L); honela kalifikatzen dira: VA (Autopista Bidea), LP (Parkeak eta Aisia-eremuak) eta CR (Ibai-ibilguak: Errekak).

La ordenación pormenorizada del ámbito viene a coincidir con la calificación global en el caso del Sistema General Viario (V), Sistema General de Cauces (C) y Sistema General de Espacios Libres (L) que se califican como VA (Viario Autopista), LP (Parques y Areas Recreativas) y CR (Cauces fluviales: Regatas)

LAGUNTZA EKIPAMENDUAREN Sistema Nagusi gisa globalki kalifikatutako guneari dagokionez, kalifikazio xehatuko honako gune hauek bereizten dira:

– Kirol Ekipamendua (ED), kirol jarduerak eta egoteko eta aisirako guneak edukiko dituena.
– Laguntza Ekipamendua (EA), hirugarren adinekoen Egoitzarako, Eguneko Zentrorako eta gainerako laguntza-programarako dena.
- Tokiko Hiri Bideak (VL), bi bide berri edukitzeko aukera izateko.

Respecto a la zona calificada globalmente como Sistema General DE EQUIPAMIENTO ASISTENCIAL se distinguen las siguientes zonas de calificación pormenorizada:

– Equipamiento Deportivo (ED) destinado a albergar actividades deportivas y zonas de estancia y ocio.
– Equipamiento Asistencial (EA) destinado a Residencia de la tercera edad, Centro de Día y el resto de programa asistencial.
– Viario Urbano Local (VL) destinado a posibilitar la disposición de dos nuevos viales.

**Argudioak:**

-Osoko kalifikazioa nahiz sistema nagusien sarearen zehaztapena egiturazko hirigintza-antolamenduko erabakiak dira, eta beraz, haiek aldatzeko, plangintza nagusia aldatu beharra dago. (Ekainaren 30eko Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen 53. artikulua).

-Euskadiko Lurralde Antolamenduko Batzordeko Gipuzkoako Hirigintza Plangintzako Sailak aginduzko txostena eman zuen 2009ko azaroaren 5ean, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 91. artikuluan ezarritakoaren arabera eta Euskadiko Lurralde Antolamenduaren maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 24. artikuluan ezarritakoaren arabera, honela zehaztuta:

1.- ARBES eremuko Plan Nagusia Aldatzeko aipatutako espedientearen aldeko txostena egitea, txostenean izaera loteslea duten alderdietatik.

2- Uraren Euskal Agentziak aldeko txostena eman du 2009ko urriaren 26an,

**Considerando los siguientes argumentos:**

-La calificación global como la determinación de la red de sistemas generales son determinaciones de ordenación urbanística estructural, por lo que su cambio requiere de una modificación del planeamiento general. (Artículo 53 de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo de 30 de junio)

-Con fecha 5 de noviembre de de 2009 la Sección de Planeamiento Urbanístico de Gipuzkoa de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco emite informe preceptivo según lo establecido en el artículo 91 de la Ley 2/2006, de 30 de junio de Suelo y Urbanismo y en el artículo 24 de la Ley 4/1990, de 31 de mayo, de Ordenación del Territorio del País Vasco, en los siguientes términos:

1.- Informar favorablemente el citado expediente de Modificación del Plan General del ámbito ARBES desde los aspectos cuyo carácter de informe es vinculante.

- 2- La Agencia Vasca del Agua con fecha 26 de octubre de 2009 informa favorablemente, en el ámbito de sus

bere eskumenen esparruan, “7.2.04 Arbes eremuko Hiri Antolamenduko Plan Nagusiaren Aldaketari dagokionez (22. Aldaketa)”, eta izaera loteslea duten baldintza hauek jarri ditu:

- 7,82 m-ko kota errespetatu beharko da eraikuntzarako gunean.

- Urbanizazio Proiektuak azkenean jasoko balu dagoen lur trinkotua areagotzea, obra-baimena eskatu beharko da URA Uraren Euskal Agentzia honetako Kantauri Ekialdeko Arroen Bulegoan.

3.- Espedientea behin betiko onesteko, URA-Uraren Euskal Agentziak egindako espedientea bidaliko zaio Herri Administrazio eskudunari; ziurtapen honekin batera doa.

-Dokumentuan sartu dira, behin betiko onesteko, Uraren Euskal Agentziaren txostenean jasotako zehaztapenak.

Horrela, Hirigintzako Arauetako 15.1 artikuluan, adierazten da *eraikuntzaren sestrak Urpetzegarritasunaren Azterlanak ezarritako urpetze-kotatik gorakoa izan beharko du. Urpetze-kota hori 7,82an ezarri da.*
Era berean jasotzen da Lerrokaduren eta Sestren P2 Planoan.

Bestalde, artikulu bat erantsi da Arauetan; 26. artikulua da, eta honako hau zehazten da bertan:

*Urbanizazio Proiektuak azkenean jasoko balu dagoen lur trinkotua areagotzea, obra-baimena eskatu beharko da URA Uraren Euskal Agentzia honetako Kantauri Ekialdeko Arroen Bulegoan.*

competencias, la “Modificación del Plan General de Ordenación Urbana del ámbito 7.2.04 Arbes, modificación nº 22”, con las siguientes condiciones de carácter vinculante:

- Se deberá respetar la cota de 7,82 m en la zona destinada a la edificación.

- En caso de que el Proyecto de Urbanización contemplara finalmente el recrecimiento de la mota de tierra existente, se deberá solicitar autorización de obras en la Oficina de las Cuencas Cantábricas Orientales de esta Agencia Vasca del Agua-URA.

3.- Remitir a la Administración Pública competente para la aprobación definitiva del expediente el informe emitido por la Agencia Vasca del Agua-URA (Anexo), que se acompaña a la presente certificación.

-Se han incorporado al Documento para la aprobación definitiva las determinaciones recogidas en el Informe de la Agencia Vasca del Agua.

Así en el artículo 15.1 de las Normas Urbanísticas se señala que *la rasante de la edificación deberá superar la cota de inundabilidad establecida por el Estudio de Inundabilidad, y se establece en 7,82.*
Asimismo se recoge en el Plano P2 de Alineaciones y Rasantes.

Por otro lado se añade un artículo en las Normas que es el artículo 26 en el que se determina que:

*En el caso de que el Proyecto de Urbanización contemplara finalmente el recrecimiento de la mota de tierra existente se deberá solicitar autorización de obras en la Oficina de las Cuencas Cantábricas Orientales de esta Agencia Vasca del Agua-URA.*

-Euskadiko Lurralde Antolamenduko Batzordeak aldeko txostena eginda eta URA Uraren Euskal Agentziaren txostenean adierazitako zehaztapenak sartuta, bidezkoa da, 2/2006 Legearen 91. artikuluan xedatutakoaren arabera, Proiektuaren behin betiko onespena ematea.

-Emitido en sentido favorable el Informe de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco e introducidas las determinaciones señaladas en el Informe de la Agencia Vasca del Agua – URA, procede, de conformidad con lo dispuesto en el articulo 91 de la Ley 2/2006, otorgar al Proyecto la aprobación definitiva.

Udal honi dagokio **behin betiko onespena** emateko eskumena.

La competencia para otorgar la **aprobación definitiva** corresponde a este Ayuntamiento.

-Lege bereko 85. artikuluaren arabera, hirigintzako lizentziak, onespenak eta baimenak etetea bertan behera geratzen da, hartarako erabaki den gehienezko epea amaitze hutsagatik (urte bat), eta, edozein kasutan, izapidetzen ari den plana behin betiko onetsiz, onespena aurretikoa balitz.

-De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 85 de la misma Ley, la suspensión de aprobaciones, autorizaciones y licencias urbanísticas, se extingue por el mero transcurso del plazo máximo para el que haya sido adoptada (un año) y, en todo caso, con la aprobación definitiva del plan en tramitación, si ésta fuera anterior.

-Espedientea Obra Publiko, Hiri Garapen, Etxebizitza, eta Ingurumeneko Batzordeam aztertu zen 2009ko azaroaren 16an**.**

-Examinado el expediente en la sesión de la Comisión de Obras Públicas, Desarrollo Urbano, Vivienda y Medio Ambiente de fecha 16 de noviembre de 2009**.**

-Ikusirik espedientean jasoa dagoen dokumentazioa

-A la vista de la documentación obrante en el expediente

**Udal Batzarrak zera erabaki du:**

***1.- Behin betiko onestea Plan Nagusia Aldatzeko Proiektua (22. aldaketa) 7.2.04 ARBES eremuan.***

***Kenduta geratzen da hirigintzako lizentzien, onespenen eta baimenen etena.***

***2.- Proiektua Foru Aldundira bidaltzea, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren***

**El Pleno de la Corporación acuerda:**

***1º.- Aprobar definitivamente el Proyecto de Modificación del Plan General (Modificación nº 22) en el ámbito 7.2.04 ARBES.***

***Queda levantada la suspensión de aprobaciones, autorizaciones y licencias urbanísticas.***

***2º.- Remitir el Proyecto a la Diputación Foral para su depósito en el registro a que se refiere el articulo 89 de la Ley***

*30eko 2/2006 Legearen 89. artikuluak jasotzen duen erregistroan gordaila dadin, eta, era berean, Euskadiko Lurralde Antolamenduko Batzordera ere bidaltzea.*

*3.- Lurralde historikoko aldizkarian argitaratzea behin betiko onespen-erabakiaren eduki osoa eta hirigintza arauak, dagokion hirigintza-plana aipatutako erregistroan gordailutu dela adieraziz.*

*Gainera, lurralde historikoko egunkari hedatuenean ere argitaratuko da behin betiko onespen-erabakia.*

*4.- Erabaki honek administrazio-bidea agortzen du. Honen aurka, aukeran, berraztertzeko errekurtsoa jar daiteke, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa baino lehen, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta, edo bestela, Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazio Auzietako Salan zuzenean inpugnatu dezakezu, bi hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta, egoki irizten den beste edozein aurkeztetik at".*

*2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, así como a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco.*

*3º.-Publicar en el boletín oficial del territorio histórico el contenido íntegro del acuerdo de aprobación definitiva y de las normas urbanísticas con indicación de haberse producido el depósito del correspondiente plan urbanístico en el citado registro.*

*El acuerdo de aprobación definitiva se publicará además en el diario de mayor difusión del territorio histórico.*

*4º.-El presente acuerdo pone fin a la vía administrativa. Contra el mismo podrá interponerse potestativamente recurso de reposición, previo al contencioso-administrativo, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente a la fecha de su notificación, o bien impugnarse directamente ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente a la fecha de su notificación, todo ello con independencia de cualquier otro recurso que considere pertinente".*

**DEKRETUA:** Aurreko erabakian agindutako guztia beteko zaie interesatuei.

Hiri honetako Udal Txit Goreneko Alkate-Lehendakari jaunak agintzen eta sinatzen du, Irunen, bi mila eta bederatziko azaroaren 30ean.

ALKATEA/EL ALCALDE,

**DECRETO**: Se dará cumplimiento a los interesados de cuanto ordena el acuerdo anterior.

Lo manda y firma el Señor Alcalde-Presidente del Excmo. Ayuntamiento de esta Ciudad de Irun, a 30 de noviembre de dos mil nueve, certifico.

IDAZKARIA/EL SECRETARIO,

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

**EGINBIDEA**: Data honetan betetzen da agindutakoa, ziurtatzen dut.

**DILIGENCIA.-** Con esta fecha se cumple lo ordenado, certifico